

1995ean jaio nintzen Ordizian eta bi urte betetzear nengoela hasi nintzen Jakintza Ikastolan. Idazteari gustua noiz hartu nion ez naiz ondo oroitzen. Sei zazpi urte nituelarik idatzi nuen lehenengoz nire egunerokoa eta badirudi oso kuttuna nuela, hamar urte ondoren nire logelan gordeta dut eta. Hau irakurtzen dudan bakoitzean kontu xeble horiek nondik zetozkidan ez dakit eta orain ere nire ipuintxoaren sortzean ez nago oso ziur zerk eraman nauen honako hau idaztera.

Garai hartatik hona idatzi ditudan istorioak ikastolako lanetarako izan dira, ez dut denbora librean idatzi, ala ere lan bakoitzean nire idazteko irrika islatuta utzi nahi izan dut. Asko poztu nau beraz, sari honek, lehiaketa batera lehenengo aldiz aurkeztu eta norbaiti zure lana gustatzeak idazten jarraitzeko gogoia pizten dizu. Besterik gabe espero dut zuek ere gustuko izatea.

ERREALITATEAREN ITZALEAN

Nekatuta zaude, bagoiko argi indartsuak min egiten dizu begietan. Etxera iristeko irrikaz zaude. Ingurukoak begira dituzula sentitzen duzu. Ez, ez da horrela, zure usteak besterik ez dira. Inork ez du zugar errepertatu, sartu bezala irtengo zara bagoitik, azkar batean, eta jendeak ez du sumatuko zure gorputz argalak isilean mugituko duen aire freskoa.

Iluntasunean eskaileretan gora zoaz eta Nicolas Helmen presentziak sekulako hotzikara eragin dizu. Ez dago hemen, esaten diozu zeure buruari, bosgarren solairuko 523. logelan dago. Baina ez duzu lasai egotea lortzen, edonon azal daiteke eskuan labana duelarik, lepoa moztu diezazuke edo isilean bihotzaren erdi-erdian sartu. Ez, badakizu hori ez dela inoiz gertatuko; zuri ez lizuke ezer egingo. Ez luke inoiz bere kaiolatik irtetea lortuko. Eskuin- ezker begiratzen duzu. Iluntasuna. Isiltasuna. Beldurra, beldurra da sentitzen duzuna, baina ez duzu onartu nahi.

Korrika zoaz kaletik etxerantz, 10. kalea azkenik. Ezohiko lasaitasuna eragin dizu, desesperazioak gauzatu. Erotzen hasia zarela onartu beharko duzu behingoaz. Korrika bizian hasi zara berriz, atzean duzula pentsatzeak eraginda. Abesten hasi zara. Wagnerren sinfonia abesten hasi zara, jabetu barik. Egunero lasai daitezen jartzen diezu. Oraingoan zeuk behar izan duzu.

Senarrak atea ireki dizu. Segituan konturatu da ez zaudela ondo. Azkenaldian oso gogor jotzen zaituzte eroaldiek. Afaria prest duzu mahi gainean. Ez duzu jango; badakizu ez duzula ondo egiten, baina ez duzu jango. Amelia Jefersonen argaltasuna gustuko duzu. Hasieran, bere gorputz hezurtsuak aztoratu egin zintuen, baina orain gustuko duzu, oso gustuko, zure gorputza baina gustukoago.

Henryren begiradak pena du islatzen, pena ematen diozu, baina ez du zu konturatzerik nahi. Badakizu pena hori ez duela nahi sentitu, benetan maite zaituelako, baina ezin du ekidin. Eta zuk ez duzu ezer egiten, axola ez balitzaizu bezala.

Zopa katilukada bat hartuta gaizki sentitu zara. Badago modu bat berriz ere ondo sentiaraziko dizuna. Bi aldiz pentsatu duzu eta, erabaki hartuta, belaunikatu zara. Negarra atara zaizu egiten ari zarena ikusita, baina lasai zaude orain. Amelia Jefersonen gorputza izateko eguna gero eta gertuago ikusi duzu.

Komuneko ispiluaurrean zegoen. Bere begi-zuloek ikaratu egin zuten, argi apalak itzal xebleak markatzen zizkion aurpegian. Eskolara joateko ordua zen. Makillajea ematea bakarrik falta zitzaion bere begietako iluntasuna estali eta horren gustuko zituen hezurak ondo markatzeko. Ama kezkatua zuen Ameliak, eta medikuarekin txanda zuten arratsaldean. Egun luzea izan zen berarentzat, inoiz ahaztuko ez duena. Egun hura izan zen eguzkia bere gelako balkoi zabaletik sartzen ikusi zuen azken aldia.

Sophy andereak atea ireki du, eta Ameliak begiak irekitzeko esfortzua egin du. Ez du ohetik altxatu nahi; biziak ez du zentzurik argaltasuna baloratua ez bada. Egunero legez, mantal zuria jantzita darama Sophyk, eta horrek bere zurbiltasuna disimulatzen du. Amelia horretaz konturatu da, eta bera zenaren isla dela pentsatu du momentu batez.

Medikuak airea hartzera joateko eskatu zion egun hartan, amak bazekien zer esango zion pediatrik; bere alabatxoak gaitz mental bat zuela, ez zuela errealitatea zen bezalakoa ikusten, transformatzen saiatzen zela bere izatea. Amak ez zuen ulertzen zergatik hitz egiten zuen modu horretan medikuak, egia ezkututzen saiatzen zena bera baitzen momentu hartan.

Haurtxo bat zen Amelia gela zurian sartu zutenean, 16 urte betetzear zegoen eta sei urtetan ez du lortu bere logela berdeko balkoira itzultzea.

Neska animatu behar duzu gaur ere; gosaria ekarriko diozu lehenengo. Begiratzen duzun bakoitzean, hozkirriak gorputz osoa asaldatzen dizu. Begiak lekuz kanpo dauzka, ezagutu zenuenean distira zuten oraindik, baina jada galdu dute, eta almendra koloreko begi irekiek egur zahar kolorea hartu dute, apal eta goibela. Jaten hasi denean, gogoz ari dela ikusi duzu, eta zuk jada ezin duzu hori egin gaizki sentitu gabe.

Gaizki sentitzen da batzuetan Nicolas, eta Wagnerren sinfoniak, egunero legez, gaur ere lasaitu egingo du. Bere aita ez du inoiz jasan, txiki-txikitatik baztertu izan baitu; ez du inoiz onartu bere semearen izaera eta erabakia. Ez zion bere bizitza egiten uzten, ez zituen bere erabakiak onartzen.

Mario etxera eramateko beldurra izan zuen lehen egunetik, bazekien aita nolakoa zen, eta ez zuen inolaz ere bere semea, gizon izan behar zuen horrek, mutilak gustuko izatea onartu. Jipoi galanta eman zion aitak gau hartan, Mario besotik heldu eta atetik bultzaka atera zuen egun hartan bertan. Eta hartu zuen azken erabakia Nicolasek. Gauean urdaiazpikoa mozteko labana hartu eta bere aita erailtzen saiatu zen Nicolas. Bizia galdua izango zuen ordurako aitak ama garaiz esnatu eta bere mutikotxo geldiarazi izan ez balu.

Zortea izan duela konturatu zara, arazo mental gisa hartu du justiziak Nicolasen amorrua. Badakizu ez dagoela erotuta; hala ere, sarritan izutzen zaitu gauean ohean zaudela labana eskuan duela azalduko dela pentsatze soilak. Amorruek zainak markatzen dizkio noizbehinka eta inoiz lotu behar izan dute elektroxokak emateko. Zuri ere amorrua dizu, bosgarren solairuan zure erruz jarraitzen duela pentsatzen duelako.

Ohean etzan zara. Henrik goxo laztandu zaitu. Bere muxuek burua galarazten dizute. Azkenik, behar zenuen plazera! Aspaldian sentitu nahi zenuen. Arnasa geldiarazten dizu, bihotz taupadak bizkortu dizkizu eta sekulako beroak jota utzi zaitu. Bion gorputz biluziek argitzen dute logela iluna.

Zazpigarren solairuan ingresatu zutenean, izutu egin zinen. Ez zenuen inoiz horrelakorik ikusi. Emakumea irrikaz zegoen bere “haurra” nolakoa izango zen jakiteko, eta zuk ez zenekien nola esan haurra ez zela jaioko. Ilusioz beterik zegoen Margaret Mc Milan, izena prestatuta zuen jada, eta zu berriz ere ez zinen izena pentsatzeak ez zuela ezertarako balio esateko gai sentitu.

Haurdu zaude, ia ziur zaude azkenaldiko nekea gau horren ondorioa dela. Ez duzu umerik nahi. Gustura oparituko zenioke haurra Margareti. Sutan jartzen zaitu horretan pentsatzeak soilik. Ez duzu umerik nahi. Haurrak bizia gehiago aztoratuko dizu; umeak oso bizkorra dira, helduak baina askoz ere biziagoak, nahi dutena lortzeko gai dira. Kasketa soil batekin ingurukoak menderatzen dituzte, esklabu bihurtzen dituzte, eta zu ez zara inoren mendekoa. Ez zaitu inork menperatuko.

Libre izatea da bizitzen jarraitzeko duzun esperantza bakarra. Ingurukoek zutaz duten iritziak soilik gizartearen esklabu egiten zaitu. Eta zure lanak, onartu nahi ala ez, esklabotasun horren kontra errebelatu diren pertsona ausartak tratatzean datza. Egiten dutena lekuz kanpo egon arren, nahiko ausardia erakusten dute etsi gabe.

Unibertsitateko irakasle hark behin esan zizun barne paranoiak kanporatzean ingurukoak kutxa daitezkeela, kontuz ibili beharko zinela behin ikasitako guztia praktikan jartzen hasitakoan. Hasieran kasu egin zenion, lanera sartzen zinen bakoitzean irudimenezko hesi bat jartzen zenuen, bai Amelia eta baita Nicolasekin egoten zinen bakoitzean, baina orain zure irakaslea superfizial hutsa zela konturatu zara eta ez zela benetan bere ingurukoak ulertzen saiatzen. Zure lana horretan datzala badakizu orain, bosgarren eta zazpigarren pisuan daudenekin enpatian jarri eta laguntzean.

EZ, Sophy EZ, esaten dizu barneko ahotsak, zure azkenaldiko jarrera asko aldatu da Londreseko kale honetan lanean hasi zinetetik. Amelia zure gorputz liraina hezurretan uzten ari da, Nicolas 20 urteko mutilak erail egingo zaituela pentsatzen duzu behin eta berriz eta zure barruan dagoen umea ez duzu nahi, Margaretek, desesperazioak erotuta, haur mental bat sortzen duen aldi berean. Henry eta zure umea da sabelean daramazun hori.

18 urte zenituen Henry ezagutu zenuenean, unibertsitatean hasi berriak zineten biok. Medikuntzako fakultatea izugarri handia zen. Korridoreetan galduta zenbiltzan, baloi batek buruan jo zintuenean. Madarikazioz bete zenuen unibertsitate osoa, eta hara non azaldu zitzaizun mutil galant hura, barkamen eske. Nazkagarri halakoa, pentsatu zenuen, amorrazioak ez zizun bere edertasunari erreparatzen utzi. Hilabete pasa zen beraz maitemindu zinen arte.

Euria ari zuen lehenengo aldiz berarekin hitz egin zenuenean. Aterkia ahaztu zenuen etxean eta hara non azaldu zitzaizun morrosko adeitsu hura, euri-jasa hartatik etxera lehor eraman zintuena. Berari buruz zenuen iritzia aldatu zen instant hartan. Bigarren egunean bazkaltzen ari zinela azaldu zen. Egun hartatik aurrera zeuen atsedendialdiak batera igarotzen zenituzten. Bere irribarreak transmititzen zizun konplizitateak txora-txora eginda uzten zintuen egunak joan eta egunak etorri. Begiratzen zintuen modu hura oraindik ez da aldatu, bere begi berdeak zure poztasun iturri ziren.

Eta orain ere zuri begira dituzu, ohean etzanda negar batean zauden bitartean, zu lasaitu nahian. Ez duzu umerik nahi eta berak zure erabakia onartzen du; zer da, ba, bestela, ume bat bi pertsonak nahi ez badute? Beti etorriko litzaizuke bestela burura haurtxoa ikusiko zenukeen bakoitzean berak nahi izan zuelako izan zenutela, eta ez zuk desio izan zenuelako, eta hori ezingo zenuke onartu; bion erabakia da umea izan ala ez izatea. Momentu honetan bertan ez duzu bizi nahi. Zeure umea izan nahi duzu, norbaitek zuri bizia kentzeko zain. Nicolasek bihotzaren erdian labana sartzea nahi duzu. Mina kentzeko. Dena ahazteko. Zure bizia amaitzeko.

Ibaiko zubia zen nire irtenbide bakarra. Infernu honetatik alde egin nahi nuen. Lanetik nentorren egun hartan ez nuen metroa hartu nahi izan. Zubi hartatik igaro nahi nuen eta mundu tamalgarri honi agur esan. Azken bi urteak jasanezinak izaten ari ziren. Bakar-bakarrik nengoen arazo guztien aurrean. Nire ingurukoek abandonatua ninduten. Behin eta berriz entzuten nien denei “*maite zaitut*” faltsu hura, benetan esaten ez bada, bihotza lehertzen dizula. Eta niri aspaldian zidaten bihotza lehertu. Aspaldian ninduten ahaztu. Ez zen inor jabetuko egun hartan ez nintzela nire etxe txikira lotara joango.

Azkenik zubia, nire buruhausteak ahazteko pasabidea. Barandailatik begira jarri nintzen, ortzimugarantz. Argiak islatzen ziren ur gardenean. Hiri biziko argiak. Eta iluntasunean, nire isla hila, itzalia zebilen ezkutuan. Londreseko noria ikusten nuen barandailara igotakoan. Azken arnasa hartzeko gogoz begiak itxi nituen, besoak alde banatara zabaldu eta txoria banintzan jausi nintzen, bizitzari agur eginez.

Baina zoriak ez zidan hiltzen utzi, eta orain, hilabete ondoren, zazpigarren pisuan nago, nire logela berrian. Leihotik begiratzean altuerari erreparatu diot. Hura izan zen nire hutsegitea, ez nuen altuera egokia aukeratu, ez nuen leku aproposa aukeratu. Leihoa ireki nahiko nuke eta jausi.

Gaua ezin gogorragoa izan da, gogo txarrez jaiki zara lanera joateko. Animoak galduta dituzu, baina ez duzu beste erremediorik. Henry beldurtu egin zenuen atzo, gosaria ekarri dizu ohera, baina ez duzu jan. Bera da gaur goizean altxatzeko duzun arrazoi bakarra. Min izugarria egingo zenioke egun batean esnatuko ez bazina, eta berak ez du horrelakorik merezi.

Ameliarekin egon zarenean, ez diozu gosaririk eman, ez zara gai izan zuk egiten ez duzun zerbait egitera behartzera. Irribarre alai batez eskertu dizu zure adeitasun eroa.

Nicolas oihuka utzi duzu gelan. Ez duzu elektroxokik jasotzera bidali. Mutilak badu garaia guttiz lasaitzeko, ez diozu Wagnerren sinfonia jarri, buila egin behar du. Lanpara hautsi du eta ateari ostikoka hasi zaio, baina ez duzu ezer egin. Mutilak barnean duen amorrua ateratzen utzi diozu. Atea itxi eta han utzi duzu. Lau pareta zuriren artean.

Mandarra kendu duzu zure bulegoan, lau ordu luze izan dira goizekoak eta beste lau ordu luze dituzu arratsaldean. Margaret eta gaixo berri bat dituzu zazpigarrenean: Roy Oxford. Zubi zaharretik jauzi zen duela hilabete eta ospitalean ingresatua egon ondoren, hona ekarri dute, errealitatearen itzalera, egia itzaltzen saiatzen garen eraikin honetara.

Margaretek negar egin du, oraindik ez du sinesten bere barnean ez duela haurrik, airez beterik duela sabela. Tratamendua jarri diozu, pixkanaka bere egoera berezitik irteteko. Batzuek sekulako gogoia dute haurrak izateko, eta beste batzuek gorroto dituzte. Beti nahi ez duzuna tokatzen zaizula konturatzen hasia zara. Zortea opa diozu. Segituan irtengo da aro txar horretatik eta nahi adina ume izango ditu ziur zaude. Oso emakume kementsua da eta ez du inoiz etsiko; borrokan jarraituko du.

Azkenik iritsi zara 765. logelara. Roy zain duzu. Gizonak tristura izugarria transmititu dizu baina, aldi berean, berekin hitz egiteko beharra sentitu duzu, bera da zure azkenaldiko egoera ondo uler dezakeen bakarra. Zeu zara laguntza behar duena, zure egoera norbaitek uler dezan behar duzu. Konpartitu zure mina. Eta berak uler dezake. Berak lagun diezazuke. Irtenbiderantz gida zaitzake.

Negarrez bukatu duzue biok ordubetea, zure baitan dagoela bizi nahia esan dizu, ez pentsatzeko besteenagan, egoista izateko; ez, egoista ez, zeure buruaren jabe; hori da benetan esan nahi izan dizuna. Besteek hemen geldiarazten bazaituzte esklabo bihurtzen zaituztela eta arrazoi du. Konturatu gabe Henryk bere esklabo bihurtu zaitu. Bizitza luzarazten dizu, zuk nahi duzun bakarra agur esatea denean.

Baineran sartu zara ur berotan. Ez duzu ezer sentituko. Etzaterakoan, uretan murgildu zara eta emeki-emeki laztandu duzu besoa punta zorrotzarekin. Zure bizitza kanporantz doa,

likido gorriarekin batera. Bista lausotu zaizu. Isiltasuna eta garrasiak. Dena batera entzuten duzu eta ez duzu ezer entzuten.

ABIZENA: Gutenberg

IZENA: Sophy

ADINA : 31 urte

ARRAZOIA: Suizidio saiakera, lanak eraginda.

ERANTZUNA: Sophy Gutemberg, zure emaztea 2001eko martxoaren 24an ingresatua izango da Capio Nightingale Hospitalen.

Henryk eskutitza du eskuetan, Sophy ospitaleko ohean etzanik dagoela. Modu bakarra hori du horrenbeste maite duena gertu izateko eta alde egin ez dezan. Bera horrenbeste urtetan zehar lanean aritu den psikiatrikora bidaltzea.

Sophy